

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3519

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 22koa, Industria Sustatzeko sailburuordearena, krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzen 2025eko deialdiaren berri ematen duena. Bideratu Berria programa.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 17ko Aginduak arautzen du Bideratu Berria programa, zeinaren bidez ezartzen baitira krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak (EHAA, 203. zk., 2017ko urriaren 24a).

Aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, egokia da krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko 2025eko ekitaldirako laguntzen deialdia egitea.

Programa hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduan jasota dago, zeinaren bidez Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2024., 2025. eta 2026. urteetarako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu baitu. Agindua Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratu da, «www.euskadi.eus», egun Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari eskainitako esparruaren barruan, eta «Planak eta proiektuak» atalean.

Azaldutakoa dela-eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 17ko Aginduan ezarritako laguntzen 2025eko deialdia egitea; laguntza horiek aurrerakin itzulgarri modura emango dira, krisian dauden enpresak berregituratu eta bultzatzeko helburuz. Bideratu Berria programa.

Deialdi hau ebazteko, honako hauek hartuko dira kontuan: Dirulaguntzen Araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen xedapenak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko manuak eta hura betearazteko erregelamendua, eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenak.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak baimendutako kredituen arabera, hizpide dugun dirulaguntza-deialdiak aurrekontu-estaldura nahikoa du; honela, 1. artikuluko xedera bideratutako baliabide ekonomikoak 1.000.000,00 eurokoak dira.

2.– Emango diren dirulaguntzen diru-zenbateko osoak ez du gaindituko aipatutako diru-kopurua, ez eta hura eguneratzearen ondorioz ateratzen dena ere –gehienez ere, aurreikusitako zenbatekoaren % 50 gehiago–, betiere kreditu-loturaren araubideari edo indarrean diren legetan aurreikusitako aurrekontu-aldaketaren araubideari jarraikiz eta laguntzak ebatzi baino lehen. Inguaruabar hori gertatzen bada, Industria Sustatzeko sailburuordeak horren berri emango du, Euskal

Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen bat argitaratuz. Horrek, ordea, ez du esan nahi deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea luzatuko denik.

3.– Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeak ez du ekarriko, inola ere, diruz lagundu daitezkeen jarduketan gainfinantzaketarik. Hori gertatuz gero, soberakinari dagokion diru-zenbatekoa murriztuko da.

3. artikulua.– Eskabideak, aurkezteko epea eta modua, eta jakinarazpenak.

1.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta agindu honekin lotutako gainerako izapideak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluekin eta Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan ezarritakoarekin.

Dirulaguntzaren eskabidean, interesdunek konpromisoa hartu beharko dute enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bai eta, lege horren 9.4.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueren eta jarduketan gainfinantzaketarik ez izateko ere. Hori gertatuz gero, soberakinari dagokion zenbatekoa murriztuko da.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituzten enpresek baino ezin izango dute programa honetan jasotako dirulaguntzarik eskuratu.

2.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (bertan daude izapideak egiteko jarraibideak, eta bertatik sardaiteke eskabide-orrira) esteka honetan dago: <https://www.euskadi.eus/servicios/0091110>

Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentuak aurkezteko eta eskabidearen osteko izapideak –jakinarazpenak barne– egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» erabiliko da: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bideak helbide hauetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak>

Helbide honetan eskura daiteke Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroa: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

3.– Eskabideak aurkezteko epea, betiere 2. artikuluan adierazitako zenbatekoa amaitzen ez den bitartean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 30ean amaituko da.

4. artikulua.– Ebazpena.

1.– Industria Sustatzeko sailburuordeak, organo kudeatzaileak –Industria Garapen eta Administrazioaren zuzendariak– proposatuta, eskatzaile bakoitzeko ebazpen bat eman eta jakinaraziko du, eskaera aurkeztu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Ebazpen horrek prozedura ebatziko du, eta eskatutako laguntza eman edo ukatu den erabakiko du. Epe hori inolako ebazpenik jakinarazi gabe bukatzen bada, laguntza-eskaera administrazio-isiltasunaz ezetsizat jo dezakete interesdunek, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Administrazio-ebazpenak berariaz jasoko ditu xedea, onartutako inbertsio-plana, laguntzaren xede diren berregituratze-neurriak, horiek gauzatzeko epea, onuradunek horiek gauzatzeko erabiliko dituzten baliabideak eta emandako zenbatekoa, banaketa eta guzti. Berregituraketa-neurriek hainbat urte irauten badituzte, eta, laguntzen onuradunak egin beharreko ekarpenak ere hainbat urtetan gauzatzekoak badira, laguntzak emateari buruzko ebazpenak urteroko periodifikatzea ere zehaztuko du. Eskaera ezesten bada, hura ezesteko arrazoiak adieraziko dira.

2.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari, bitarteko elektronikoen bidez; hori gorabehera, emandako dirulaguntzen zerrenda urtero argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta haren egoitza elektronikoa, zenbatekoa, finantzatutako jarduketa eta pertsona edo entitate onuraduna adierazita, hala xedatzen baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluan.

3.– Emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa jar diezaioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Artikulua.– Debekuak.

1.– Bideratu Berria programa arautzen duen 2017ko urriaren 17ko Aginduan araututako laguntzak ez dira eskuragarri egongo Aginduaren 5.5 artikuluko enpresentzat.

2.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, ezingo dira dirulaguntza hauen onuradun izan egoera hauetako batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak:

a) Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe zigortutakoak edo prebrikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe erabiltzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik zigortutakoak.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaraturia izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturia egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

c) Kausaren batean errudun deklaraturia izateagatik administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatatzak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dauzkatenak.

f) Dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako betebeharren ordainketa egunean ez dutenak.

g) Egoitza fiskala erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean dutenak.

h) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan.

Halaber, dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

i) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez zehatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako lanpostuen erreserba-kuota betetzen ez dutenak, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

3.– 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak Merkataritza Eragiketetan Berankortasuna Ekiditeko Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartutako subjektuak badira, ezingo dira onuradun izan lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen ez dituzten enpresak.

4.– Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutako egoeran daudenei ez zaie dirulaguntzarik emango.

5.– 2.e) letran ezarritako inguruabarra egiaztatzeko, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio –agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da–, eta organo kudeatzaileak ofizioz bilduko du inguruabar horiei buruzko informazioa, non eta interesduna aurka ez badago.

Aurreko apartatuetan adierazitako inguruabarrak laguntza-eskaera aurkezten denetik eman-dako dirulaguntza likidatzen denera arte bete beharko dira.

6.– Gainerako debekuen eraginpean ez egotearen justifikazioa, enpresa eskatzaileak egindako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egingo da.

Dirulaguntza kudeatzen duen organoak noiznahi eskatu ahal izango du aurkez dakiola erantzukizunpeko adierazpenean jasotako eskakizunak betetzearen egiaztagiria. Halaber, entitate onuradunak eman zaion dirulaguntza osoa justifikatu arte gerta litekeen edozein aldaketaren berri eman beharko du.

Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, ezin izango da diruz lagundutako jarduketarekin jarraitu egitate horiek jakiten diren unetik bertatik, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak.

6. artikulua.– Betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak arau hauetan ezarritakoak dira: Dirulaguntzen Araubidea Erregulazteari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikulua, Europako erregelamendu aplikagarriak eta oinarri hau. Bereziki, onuradunek betebeharrak izango dituzte:

1.– Emandako laguntza onartzea. Horri dagokionez, laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean enpresa onuradunak ez badu berariaz eta idatziz jakinarazten laguntzari uko egiten diola, ulertuko da osorik onartzen duela, baina horrek ez du eragotziko edozein unetan uko egitea, dirulaguntza jaso ez duen bitartean.

2.– Laguntza zertarako eman den, xede horretarako erabiltzea, eta hitzartutakoaren arabera inbertsioa egitea eta enplegua sortzea, bai eta horiek justifikatzea ere.

3.– Organo kudeatzaileari, inbertsioa gauzatzeko eta sortutako enpleguari eusteko epearen barruan, eskatzen zaien informazio osagarri oro igortzea, bai eta gertatzen diren aldaketak ere, Administrazioak egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izan ditzan inbertsioak garatzeari eta gauzatzeari buruz. Jarduera pertsonen buruzkoa bada, datuak sexuaren arabera bereizita eman beharko dira.

4.– Organo edo entitate emaileak egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren dirulaguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak xedatutako jarduketak ere onartu beharko dituzte, bai eta finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketanak ere.

5.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari jakinaraztea helburu bera betetzeko dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu direla beste edozein administrazioetatik edo ente publiko nahiz pribatuetatik.

Hura jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolahi ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

6.– Baldin eta aldatu bada laguntza ematerakoan kontuan izan zen edozein egoera objektibo edo subjektiboa, horren berri ematea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari.

Hura jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolahi ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

7.– Enpresak laguntza ez-legitimorik badu, Europako Batzordeak dirulaguntza eman ostean erabaki negatiboa hartu duelako eta, ondorioz, itzultzeko agindua duelako, eta oraindik itzuli ez badu, horren berri eman beharko zaio Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari.

8.– Eman den laguntzaren indarraldian egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta urtarilaren 12ko 1/2021 Dekretuko xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitako enteekiko betebeharrak ere (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko

Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen da); halaber, jasotako funtsak itzultzea, zorduna izanez gero itzulketaren bidez kototasunari buruzko ebazpen baten bidez.

9.– Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatzeko zaion merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, eta eskatutako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko oro izatea, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

10.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, agiri horiek egiaztatze- eta kontrol-jarduketetan erabil daitezkeen bitartean.

11.– Jasotako finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea eta diruz lagundutako ekintzak direla aipatzea ondo ikusteko toki batean, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren logotipo korporatiboa agerian jarriz, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera.

12.– Jasotako funtsak, edo garaturiko jarduerarako nahiz jarduketarako emandako dirulaguntzaren kostuaren gaineko soberakina itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko Legearen 36. artikuluan jasotako kasuetan.

13.– Ikuspegi interseksionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituzten hizkera eta irudiak erabiltzea dirulaguntza jasotzen duen jarduera edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan.

14.– Herritarren hizkuntza-eskubideak eta, bereziki, euskararen erabilera bermatzea, diruz lagundutako jarduketarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

15.–) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, halakotzat hartuta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko Legearen 49. artikuluan araututakoa.

16.– Lagundutako inbertsioek gutxienez hiru urteko amortizazio-aldia izango dute, eta gutxienez hiru urtez egon behar dute onuradunaren aktiboan.

17.– Beste edozein betebeharrak, arau hauen arabera eska daitezkeen: Agindua, 2017ko urriaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Bideratu Berria programa arautzen du, krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituena; Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta horien garapen-arauetan xedatua.

7. artikulua.– Ez-betetzeak.

Baldin eta enpresa onuradunak ez baditu betetzen Bideratu Berria programa,-krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituena-, arautzen duen Aginduan ezarritako betekizunak, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak eta, hala badagokio, dirulaguntzak emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak, Industria Sustatzeko sailburuordeak –alde aurretik Industria Garapen eta Administrazioaren zuzendariak ez-betetzearen espediente hasi eta izapidetu duela eta hor interesdunari entzunaldia eman zaiola– ebazpen administratibo baten bidez deklaratu du dirulaguntzarako eskubidea bertan behera utzi dela eta, hala badagokio, jasotako dirulaguntzen printzipala eta dagozkion berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharrak dagoela, betiere arau hauetan ezarritako baldintzetan: Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirula-

guntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta horiek garatzeko arauak. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorioei dagokienez.

Egon litezkeen ez-betetzearen eta dirua itzultzearen arrazioen artean, berariaz jasota dago hau: laguntza emateko ebazpena egiterakoan kontuan hartutakoa baino % 25 txikiagoa den ekarpena egitea enpresa onuradunak.

Entitate onuraduna konkurtso-prozedura batean sartzen bada, Administrazioak, emandako diru-laguntza itzulgarriak berreskuratzeko, kasuan kasu aplikagarri diren xedapenek aitortzen dioten lehenetsuna izango du, eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharraren erantzukizun subsidiarioa deribatzen espedienteak abiarazi ahal izango ditu pertsona juridikoen ordezkarien aurka, edozein izanik ere haien izaera, hala ezartzen baita urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren 100.2 artikuluan (1/2021 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duena).

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 17ko Aginduan (krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Berria programa arautzen duena), Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) egiten diren aipamenak ordeztu egingo dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 21eko 20/2023 Legean dagozkien manuekin, besteak indargabetuta daudelako.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Lege Organikoari egiten zaizkion aipamenen ordeztu, aintzat hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

30.000 eurotik gorako dirulaguntzei dagokienez, Merkataritza-operazioetan berankortasunaren kontra egiteko neurriak ezartzei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak zenbateraino bete diren egiaztatzeko, honako bide hauek erabiliko dira:

a) Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkez dezakete, ordezkari-ahal nahikoa daukan pertsona fisikoak sinatuta, edo, pertsona juridikoen kasuan, administrazio-organoak edo haren baliokideak sinatuta. Horrez gainera, b) letran ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, beren araudia betez gero.

b) Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoak hauetako bat aurkez dezakete:

1. Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egindako ziurtagiria, zeinean banakatuta agertzen baita ikuskatutako azken urteko kontuen memorian azaltzen diren ordainketei buruzko informazioa, baldin eta kontu horien arabera ondorioztatzen bada iristen dela abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara (apartatu honetan ezartzen da), uztailaren 5eko 15/2010 Legeak –zeinak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen baitu– hirugarren xedapen gehigarrian eskatzen den informazioaren arabera.

Ziurtagiri hori hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte izango da baliozkoa.

2. Baldin eta ezin bada egin aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria, hots, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egindako «Adostutako prozedurei buruzko txostena», zeinaren bidez, erreferentziazko data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeko dauden fakturen lagin adierazgarria berrikusita, ondorioztatzen baita inolako salbuespenik gabe bete direla abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdiak, edo, salbuespenak aurkituz gero, ez dutela eragozten apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea.

Eskakizun hori betetzat joko da, baldin eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-maila Enpresen sorkuntzari eta hazkundeari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan ezartzen den ehunekoaren parekoa edo handiagoa bada.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Dirulaguntza hauetatik sortzen diren prozeduren ebazpenetan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira eskabideen balorazioan parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak eragozteko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ondorioak izango ditu, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 22a.

Industria Sustatzeko sailburuordea,
ANDOITZ KORTA ZEARRETA.

ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BIDERATU BERRIA PROGRAMAREN ESPARRUAN
DIRULAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKOA

_____ jaunak/andreak (NAN/AIZ: _____), ENPRESA ESKATZAILEAREN izenean (ordezkatzen dudak erakundea eta helbidea: _____), adierazten dut, nire erantzukizunpean, programa honi buruzko betekizunak betetzen ditudala, bai eta emandako datuen zehaztasuna ere, hau da,

– Enpresa eskatzaileak laguntzaren deialdi-agindu honen artikuluetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

– Eskaerako datu guztiak egiazkoak eta osoak direla, bai eta aurkeztutako dokumentazio guztia ere.

– Beste erakunde publiko edo pribatu batzuei inbertsio berberetarako eskatu dizkien edo haiengandik jaso dituen laguntzak aitortu dituela.

– Aurkezten dituen dokumentuen egiazkotasunaren erantzukizuna bere gain hartzen duela.

– Egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.

– Konpromisoa hartzen duela aurretik adierazitakoa betetzeko, adierazpen hau aurkezten duenetik deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza osoa justifikatu arteko denbora-tarte osoan.

– Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen duela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Konpromisoa hartzen duela diruz lagundutako jarduerak eta jarduketak neurriz kanpo ez finantzatzeko, dirulaguntza likidatu arteko aldian, ezertan eragotzi gabe etorkizunean xede bererako jaso ditzakeen laguntzen zenbatekoa adierazteko betebeharra.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BIDERATU BERRIA PROGRAMAKO DIRULAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO LEGEZKO DEBEKUEN KONKURRENTZIARIK EZ IZATEARI BURUZKOA

_____ jaunak/andreak (NAN/AIZ: _____), ENPRESA ESKATZAILEAren izenean (ordezkatzen dudun erakundea eta helbidea: _____), nire erantzukizunpean adierazten dut ez nagoela programa honen onuradun izateko debekuen eraginpean, eta emandako datuak zehatzak direla, hau da,

– Ez dagoela epai irmo batez laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko aukera ez izatera zigortuta edo prebarikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik zigortuta.

– Ez duela eskatu borondatezko konkurtso-deklaraziorik, ez dagoela ezein prozeduratan kaudimengabetzat jota, ez dagoela konkurtsoan deklaraturik, ez dagoela esku-hartze judizialaren eraginpean edo ez dagoela desgaitua Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

– Ez duela Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik.

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren ekainaren 26ko 1/2014 Legea; edo ez izatea Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargudunak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

– Zerga-egoitza ez duela erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

– Ez duela galdu, epai irmo bidez, dirulaguntzak eskuratzeko aukera, hala xedatzen duen edozein legeri jarraituz. Zehazki, ez duela zehapen administratibo edo penalik jaso sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloko araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Hala badagokio, Espainiako araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izatera behartuta egonik, berdintasun-plan bat duela, eta 50 langile baino gehiago edukirik, egiaztatu dezakeela ezarri dituela sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Espainiako legeek ezarritako baldintzetan.

– Ez dagoela Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua xedatutako egoeran.

– Ez duela zehapenik jaso, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeari buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoaren arabera; edo, zehatua izan bada ere, behar diren zuzenketa-neurriak gauzatu dituela eta zehapena ordaindu duela.

– Bete duela desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den lanpostu kuota, eta ez duela egiaztatu hori bete dadin neurri alternatiboak abian jarri izana.

– Ez dagoela berreskuratze-agindu baten mende, Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezin deklaratu duen aurreiazko erabaki baten ondoren.

– Ez dela krisian dagoen enpresa bat, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Gidalerroetan xedatutakoaren arabera.

– Ez duela dirulaguntzak jasotzeko debekurik, honako enpresa hauei ere dagokienez: zuzendaritzan dauden pertsonengatik edo bestelako inguruabarrengatik, presuntzioa egon badaiteke debekua jaso duten beste enpresa batzuen jarraipena edo ondorena direla, eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bitartez.